

Garai hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: “Ez egin gero zeuen justizia jendaurrean, jendeak ikus zaitzaten; horrela, ez duzue saririk jasoko zeruko zeuen Aitarengandik.

Beraz, limosna egitean, ez ibili turuta joka, itxurazaleek sinagogetan eta kaleetan egin ohi duten bezala, jendearen txaloak irabazteko. Benetan diotsuet: Hartua dute beren ordaina. Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala: gogoko dute sinagoga eta plazetan zutik otoitz egitea, jendearen agerian. Benetan diotsuet: Hartua dute beren ordaina. Zu, ordea, otoitz egiteko, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez zaitetzte ager kopetilun, itxurazaleek ohi duten bezala: aurpegia itsusten dute, barau egiten dutela jendeari azaltzeko. Benetan diotsuet: Hartua dute beren ordaina. Zuk, ordea, barau egitean, igurtzi lurrin gozoz burua eta garbitu aurpegia, zure barauaz jendea ohar ez dadin, ezkutuan dagoen Aita baizik. Eta ezkutukoa ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina.”

Mt 6, 1-6. 16-18

LAGUNTZAILEEN GIDA

OTOITZ EGIN

Ze oztopo edo distrakzio zaitzen didate otoitz egitea?

BARAU EGIN

Zertaz gabetu behar naiz zugana gehiago hurbiltzeko eta nire bihotza askatzeko?

LIMOSNA

Nola izan naiteke eskuzabalagoa daukadanarekin eta naizenarekin?

LEKUKO IZAN

Jainkoa, zer eskatzen didazu gaur zure presentzia munduan islatzeko?

Nola izan naiteke zure maitasunaren eta egiares lekuko nire eguneroko bizitzan?

DANON ARTEAN OTOITZ

Aita ona, irakats iezadazu otoitz egiten, zuk egingo zenukeen bezala, umiltasunez eta fedeez.

Lagun iezadazu ulertzen limosna ez dela soilik sobera dudan zerbaite ematea, baizik eta nire burua entregatzeko konpromiso bat.

Lagun iezadazu baraua ulertzen, nire fedea eta besteekiko elkartasuna indartzeko bidea izan dadin.

Lagun iezadazu zure Ebanjelioaren benetako lekuko izaten, nire hitzen eta nire lanen bidez.

ELKARRIZKETA
ESPIRITUAN